Euskal Herria eta Europa ekonomi arloan

Xabier Saizar

Benetan eremu zabala, konplexu eta ezezaguna, ondoren ezagutzera eman nahi genukeena, baina baita interesgarria eta batez ere gaurkotasunez betea ere. Hilabete batzu iragan dira Europan sartu ginenetik, eta badirudi oraindik nahikoa denbora behar dugula horko arauketa eta legeria korapilotsu eta ugariak asimilatzeko. Baina asimilazio-prozesu hau zaila izan arren, ez zaizkigu errazagoak iruditzen, ingurune berri honetan moldatzeko, gizarte osoak egin beharko dituen ahaleginak. Ez dira enpresak bakarrik europarrekin lehiaketan sartzeko prest egon behar dutenak, ezta birmoldatu beharreko bakarrak ere; hauekin batera, oro har gizarte osoak birmoldatu beharko du bere burua, kultura eta ohitura europarrak osokiago bereganatuz. Beharbada, gaur konplexua eta ezezaguna iruditzen zaigun mundu horixe izango da bihar gure mundua, Europak aldatu egingo bait gaitu.

Zalantzarik gabe, 1986. urtea, Espainiako historiaren oroitzapenetan, EEEari elkarturik gelditukо da. Arazoak, politikoak lehendabizi eta ekonomikoak gero, gaindituz, 1985eko ekainaren hamabian sinatu zen Madrilen Atxekimendu-Tratatua, hain zuzen ere, lehenengo sarrera-eskaera egin eta hogeitahiru urte geroago.

Garrantzi handikoa, hainbat urte itxaron ondoren, Espainiak eman duen pausoa.

Bestalde, Estatu osoarekiko arazoen ondoan, badu hemen interesik Komunitate Autonomoetan, hartu den erabakiak izango dituen ondorioak ezagutzeak ere. Zaila, ordea, berauen arteko aldeak direla eta, Komunitate horietan ezezik, ekonomi sektoreetan eta enpresetan ere atxekimendu horrek ekarriko dituen ondorenak aztertzea. Hala ere, gure lantxo honetan EEEaren ikuspegi orokor bat ematen saiatuko gara, berezitasun nagusienen sintesi oso labur bat azalduz. Eta beste pauso bat emanez, Euskal Herriak EEEko partaideekin dituen harremanak, eta egoera berritik sor daitezkeen ondorioen balorazioa egiten ere ahaleginduko gara.

Goazen, bada, elkartekideak ezagutzera.

1. Elkartekideak

Bigarren Mundu-Gerratea bukatu ondoren, Europa osoa txikituta geratu zen. Hondamendi hartatik irteteko, europarrek berreraikuntzari heldu zioten berehala. Azkar lortu zen, berriz ere, ipar amerikarren Marshall Planari esker, gerrate aurreko maila ekonomikoa. Gerrateak egindako triskantza, eta ondorioz utzitako hondamendi itzela ikusita, etorkizunean Europako etxe zaharkitu honi teilatupe erabat berria eman behar zitzaiola erabaki zuten politikari batzuek: Churchill, Adenauer, Schuman, De Gasperi, Spaak, Monnet, etab. gogor saiatu ziren, nahiz eta sarritan ikuspegi desberdinak izan, kooperazio ekonomikoa bultzatzen. Jarraian ikusiko dugunez, 1950eko hamarkadan izango da gaur Europako Ekonomi Elkarteak bezala ezagutzen ditugun erakundeen eraikuntza.

Zenbait Estaturen arteko erakundeztapen-lana izan da hau dena. Hauek dira elkartekideak: Alemania, Frantzia, Italia, Holanda, Belgika eta Luxemburg hasieran; 1973an, Irlanda, Britainia Haundia eta Danimarka sartu ziren, eta 1981ean Grezia. Azkenik, 1986an Espainia eta Portugal. Bazkideok, noski, historia eta egoera ezberdinak zekartzaten, batzutan guztiz ezberdinak ere bai. Horregatik, oinarrizko datuak ezagutzeko, elkartekide hauen jendetza eta azalera ezagutuko ditugu, bide batez oharren bat edo beste ere eginez. Funtsezko berri hauen ondoren EEEko beste datuak argiagoak gertatuko dira, noski.

1. taula

Herrialdea	Lurraldea (mila km²-tan)	Lurraldea (mila km²-tan)	Biztanler. km²	Biztanler. aktiboa	Jendetza okupatua		
					Nek.	Ind.	Zerb.
Alemania	248,6	61.423	247	44,7	5,6	45,0	52,4
Belgika	30,5	9.860	323	42,7	3,0	30,9	66,1
Britainia Haundia	244,0	56.377	231	47,5	7,4	28,3	64,3
Danimarka	43,1	5.114	118	53,4	7,4	28,3	64,3
Espainia	504,7	38.173	75	35,9	18,0	33,5	48,4
Frantzia	544,6	54.729	100	42,5	8,1	33,8	58,1
Grezia	132,0	9.848	74	38,7	30,0	28,6	41,4
Holanda	41,1	14.362	349	40,5	51,1	27,8	67,1
Irlanda	68,8	3.207	47	46,8	11,2	37,1	51,7
Italia	301,2	56.825	188	40,8	12,4	36,1	51,5
Luxemburg	2,6	366	140	44,0	5,6	38,1	56,3
Portugal	92,1	10.099	109	43,1	25,9	37,1	37,0
CEE	2.287,0	320.496	140	42,7	9,0	35,8	55,2
Estatu Batuak	9.363,0	234.496	25	48,3	3,5	28,0	68,5
Japonia	372,0	119.259	320	49,4	9,3	34,8	51,5
Araba	3,0	264	86	37,3	8,9	49,1	42,1
Bizkaia	1,9	1.203	543	36,6	5,0	46,6	48,4
Gipuzkoa	1,9	702	351	37,7	6,7	48,1	45,2
Nafarroa	10,4	519	48	33,5	14,4	40,8	44,9
Hego Euskal Herria	17,6	2.688	152	36,3	7,5	46,2	46,2
Iparraldea	3,0	239	78	34,7	12,0	28,0	60,0
Euskal Herria	20,7	2.927	141	36,2	7,8	44,7	47,3

Iturria: BANCO DE BILBAO: *Renta Nacional en España 1983 y su distribución en España*. OLHAGARAY, P.: "Ipar Euskal Herria: Demografia eta Ekonomia", in: *Euskal Herria. Errealitate eta Egitasmo*, CLP/Jakin. OCDE: *La Economía Vasca y el Mercado Común Europeo*, Caja Laboral Popular.

Datu hauetan dakusagunez, nahikoa ezberdintasun badago partaideen artean. Iruzkin ditzagun nabarienak.

Biztanle-kopuruari buruz, Alemania, Britainia Haundia eta Italia dira handiena dutenak. Biztanle/km²-koan, ordea, Alemania, Belgika eta Holanda ditugu biztanle-dentsitate gorena ematen dutenak; lurraldeari dagokionez, berriz, Espainia eta Frantzia ditugu luze-zabalenak.

Jendetza aktiboaren zutabea miatzen badugu, Italia, Grezia eta batez ere Espainia dira portzentaia txikiena dutenak, eta hau bai dela garrantzitsua ekonomian; izan ere, jendetza aktiboa zuzenki erlazionatua bait dago BPGarekin. EEEko beste partaideekin konparatuz ikus daiteke nolako aldea dagoen hangoaren eta Espainia eta Euskal Herrikoaren artean. Jendetza aktiboa bilakarazten duten faktoreak, demografiaren gorabehera begetatiboa, migrazioa, irakaskuntza eta jubilaziorako adina eta emakumezkoek lan-munduan duten presentzia dira batez ere. Espainian oso berandu gertatu da emakumezkoak lan-mundura sartzea, eta, koadro honetan ikus dezakegunez, ez da oraindik iritsi Europako nazioen mailara.

Jendetza aktiboaren banaketa

	EEE		Espainia	
	Emakumeak	Gizonezkoak	Emakumeak	Gizonezkoak
1970	27,7	55,5	17,3	56,3
1975	28,8	54,2	20,0	55,3
1980	30,7	54,0	20,8	51,0

Jendetza landunaren sektore-banaketa aztertzean, argi azaltzen zaigu nazioen sektore-egitura ezberdina. Nekazaritzak pisu handia du oraindik Grezia, Portugal eta Espainian (EEEko partaide txiroenetan, hain zuzen). Bigarren sektore edo industri sektorean Euskal Herrian ematen den portzentaia Alemaniarena baino handiagoa da, nahiz eta Alemania izan EEEan industri maila gorenekoa. Areago oraindik: Euskal Herriko industrialpenari eransten badiogu gure Herrian bizpahiru azpisektoretan ematen den kontzentrazioa, erraz uler daiteke euskal ekonomiak bere industriarekiko duen menpekotasuna. Zerbitzu-sektoreari dagokionez, garbi dago ondoko laukian nazio garatuenek duten maila (EEEan % 55,2 batezbeste, Estatu Batuetan % 68,5 eta % 56 Japonian). Badirudi, sektore hau bultzatuz lor ditzakegula hain premiazkoak ditugun lanpostuak.

Bigarren taulan desenplegu-tasa, edo langabezia, eta inflazioa aztertuko ditugu. Interesgarriak eta gaurkotasun osoa dutenak biak. 1973az geroztik, petrolio-krisia hasi zenetik alegia, hauek biak (eta berauen konponezina gainera) izan dira gizarteak jasan dituen arazo larrienak.

Langabezia dugu zalantzarik gabe gizarteak jasan dezakeen arazo astunena, batez ere gaur egun heldu den mailara iristen denean. Azkeneko urteetan EEEko partaideen artean desenplegu-tasak izan duen eboluzioa ikustean, argi azaltzen zaigu pixkana-pixkana indizeek daramaten gorakada. BPGaren hazkunde-tasa handiagoak lortu beharko dira egoera hondagarri hau gainditzeko, baina ez dirudi datozen urteetan horrelakorik lortuko denik. Tamalez, ez da espero % 5etik gorako hazkunde-tasarik, nahiz eta gutxienez portzentaia hau behar langabezia murrizten hasteko. Horregatik, ez da ikusten epe motzera irtenbiderik arazo kezkagarri hau konpontzeko. Ia denentzat larria izanik ere egoera, Irlanda eta Espainia dira (Euskal Herria ere bai, noski) ezbehar honek larrikien jo dituenak.

2. taula

Herrialdea	Desenplegu-tasa			Inflazio-tasa		
	1982	1983	1984	1982	1983	1984
Alemania	6,8	8,4	8,4	5,3	3,3	2,4
Belgika	13,0	14,4	14,5	8,7	7,6	6,3
Britainia Haundia	10,6	11,5	12,0	8,6	4,6	5,0
Danimarka	9,5	10,4	10,2	10,1	6,9	6,3
Espainia	16,6	17,8	19,6	14,4	12,1	11,2
Frantzia	8,8	8,9	10,1	11,8	9,6	7,4
Grezia	1,4	1,7	1,9	21,0	20,5	18,4
Holanda	11,7	14,3	14,7	5,7	2,7	3,1
Irlanda	12,2	15,0	16,7	17,2	10,4	8,6
Italia	9,1	9,7	10,0	16,6	14,6	10,8
Luxemburg	1,3	1,5	1,7	9,4	8,6	5,6
Portugal	8,0	10,8	10,5	22,7	25,1	28,1
Araba	14,9	14,4	17,8			
Bizkaia	21,4	22,5	25,1			
Gipuzkoa	18,8	18,6	21,3			
Nafarroa	15,0	15,5	16,9			
Hego Euskal Herria	18,9	19,4	21,9			
Ipar Euskal Herria	-	-	-			
Euskal Herria	-	-	-			

Iturria: OCDE INE *Encuesta población activa.*

Langabeziaren panorama ilun honen ondoan, ordea, inflazioaren arazoa menperagarriagoa ageri dá. Badira oraindik inflazio-tasa dezentea dutenak, batez ere Portugal eta Grezia, baina koiunktura inflazionista gainditua izan dela esan dezakegu. 1980an Britainia Haundiak % 17,9ko inflazio-tasa izan zuen, % 21,2koa Italiak, % 13,6koa Frantziak eta % 15,5ekoa Espainiak, eta, OCDEren aurtengo aurrikuspenaren arabera, % 3,5ean kokatzen da EEEarentzat eta % 5ean Espainiarentzat. (Zoritxarrez, Espainiaren kasuan aurrikuspen hori ez da beteko 1986an).

EEEko partaideen azalpen hau bukatzeko, Barne-Produktu Gordina[1], kanpo-merkataritza eta difizit publikoa aztertuko ditugu hirugarren taulan.

Barne-Produktu Gordina, eta batez ere BPG/biztanle erlazioa, dira nazio-aberastasuna neurtzeko gehienbat erabiltzen diren tresnak. Alemania, Frantzia. Britainia Haundia eta Italia ditugu BPG gorena dutenak, baina BPG/biztanle erlazioan Danimarka, Alemania, Frantzia, Luxemburg eta Holanda dira aurretik doazenak.

3. taula

Lurraldea	BPG[1]		BPG/biztanle [2]		Inportazioak[1]				Esportazioak				Defizit publikoa
	1983	1984	1983	1984	1983	BPG %	1984	BPG %	1983	BPG %	1984	BPG %	
Alemania	734.400	779.440	11.956	12.723	71.851	23	194.038	24	190.338	26	218.170	28	2,7
Belgika	90.100	*98.900	9.144	10.039	61.354	65	-	-	58.460	62	- *		17,4
Britainia Haundia	511.400	538.800	9.072	9.540	114.168	22	134.402	25	104.503	20	120.395	22	3,3
Danimarka	63.400	69.800	12.393	13.647	18.501	29	21.239	30	18.278	29	20.133	29	7,7
Espainia	177.900	207.700	4.667	5.370	32.710	18	36.614	18	22.232	12	30.000	14	5,4
Frantzia	584.400	625.800	10.735	11.449	118.135	20	131.590	21	102.651	17	118.457	19	3,4
Grezia	38.900	41.600	3.953	4.178	10.863	28	-	-	-		-		10,2
Holanda	148.500	157.100	10.376	10.890	69.077	46	79.108	50	73.583	49	83.300	53	6,4
Irlanda	20.200	22.100	5.762	6.253	10.306	51	12.150	55	9.701	48	12.240	55	8,3
Italia	397.000	441.400	6.985	7.787	90.403	23	106.972	24	81.908	21	93000	21	11,8
Luxemburg	3.600	4.100	9.830	11.154	-		-	-	-		-		13,4
Portugal	21.840	-	2.184	-	-		-	-	-		-		10,0

* Belgika eta Luxemburg. (1) Milioi EMU/ECUtan. (2) EMU/ECUtan.

Iturria: Eurostat.

Bestalde, Portugal, Grezia eta Espainia dira BPG eskasena jasotzen dutenak. Euskal Herriari buruz, ostera, hauek ditugu 1983. urteko datuak:

Euskal Herriko BPG eta BPG/biztanle erlazioa

	BPG[1]	BPG/biztanle[2]
Araba	1.784	6.750
Bizkaia	5.918	4.916
Gipuzkoa	3.993	5.682
Nafarroa	2.710	5.221
Hego Euskal Herria	14.405	5.359

(1) Milioi EMU/ECUtan (EEEko kontu-unitatea. EMU/ECU = 137 pta.)

(2) EMU/ECUtan

Batezbeste, Espainia eta Irlandaren tarteko maila batean dago Euskal Herria, ikus daitekeenez.

Kanpo-merkataritzan, ekonomiaren irekitasuna ikusten da hor, batetik, eta menpekotasuna ere bai, bestetik. Nazio garatuenek oso ekonomia irekia dute (irekitasun hori neurtzeko, Inportazio/BPG eta esportazio/BPG erlazioak erabili ohi dira). Hemen ere Espainia eta Grezia dira indize txikiena dutenak. Nahiz eta azken urteetan kanpo-merkataritzan aurrerapen itzela ezagutu, ohizkoa izan da Espainiaren isolamendua.

Defizit publikoa BPGaren % 2,7 (Alemania) eta % 13,4 (Luxemburg) bitartean mugitzen da.

2. Europako ekonomi elkarteak

EEEen aurkezpena (honelaxe, pluralean, azalduko ditugun arrazioengatik) egin aurretik, beharrezko deritzogu nazioarteko integrazio ekonomikoan suerta daitezkeen maila ezberdinak azaltzeari.

a) Libreganbioko zona. Kooperazio-mota honetan partaideek, beren arteko harreman komertzialetan, ez dute ez arantzelik ez inolako oztoporik jartzen. Latin Amerikako Merkataritza Librearen Elkartea (LAFTA) izango litzateke ezaugarriena.

b) Aduana-batasuna. Honelakoetan salgaien zirkulazio librea uzteaz gainera, aduana-zerga berdinak ezartzen dizkiete Estatu bazkideek Elkarte-kanpoko produktuei. EEEak 1968an bete zuen fase hau.

c) Merkatu batua. Kasu honetan, aduana-batasunaz gainera, produkzio-faktoreek (hau da: kapitalak, laneskuak eta enpresak) zirkulazio librea dute partaideen artean. EEEa eta Eki Afrikako Komunitatea izango lirateke gisa honetakoak.

d) Batasun ekonomikoa. Maila honetara iristeko, merkatu-batasunaz gain, ekonomi politika, politika fiskala eta moneta-politika berdinak erabiltzea beharrezkoa da ekonomi integrazio-maila honetan. EEEak lortu ditu batasun ekonomikoak eskatzen dituen baldintza batzu, helburua, azkenik, batasun ekonomiko hori lortzea bait da.

e) Integrazio politikoa. Batasun ekonomikoaren ondotik, partaide bakoitzak bere subiranotasuna galduz, erakunde supranazionala sortuko balitz, integrazio politikoaren aurrean geundekeela esango genuke.

Hauetaz aparte, badaude integrazio sektorial deituak. Kasu hauetan, partaideek sektore-politika berdintsua eramaten dute sektore konkretu batean, erakunde supranazionalaren bidez. EIAE/CECA eta EURATOM dira hauetatoak.

Horiek dira, oro har, batasun politikoraino ere eraman gaitzaketen batasun-molde ezberdinak, eta Europan ere antzeko batasun-prozesu bat gertatzen ari da.

Orain aurkez ditzagun Elkarteak: Europako Ekonomi Elkartea (EEE/CEE); Europako Ikatz-Altzairuen Elkartea (EIAE/CECA); Europako Atomo-Energiaren Elkartea (EURATOM).

Hain zuzen ere, EIAE eta EURATOM integrazio sektorialak ditugu, eta EEE, jarraian ikus dezakegunez, merkatu batuaren eta batasun ekonomikoaren artean koka genezake.

2.1. Europako Ekonomi Elkartea (EEE/CEE)

Arestian aurkeztu ditugun elkartekideek, 1957ko martxoaren 25ean, Erromako tratatuaren bidez, EEE sortu zuten, ondoko helburu orokor hauek ezarriz: Europako Herrien batasuna, europarren bizimailaren hobekuntza eta eskualde atzeratuen garapen ekonomikoa. Une hartan, aduana-batasuna eta merkatu batua lortzea, nekazal eta garraio-politika berdintzea eta ekonomi politika harmonizatzea ziren bederik egokienak, aipatu ditugun helburuak lortzeko.

Ahalegin ugariak egin dira ekonomi integrazio-bidea bizkortzeko, baina pauso dezente emanak izan arren, oraindik etapa luzea gelditzen zaie elkartekideei helmugara iristeko, batasun ekonomikoa lortzeko, alegia. Ikus dezagun non dauden.

a) **Aduana-batasuna.** Fase hau 1968an bukatu zen. Elkartekideen harreman komertzialetan ez dago arantzelik, ez kontingenterik, ez inolako oztoporik. Elkarte-kanpoko nazioei partaide guztiek arantzel berdina aplikatzen diete, hau da, KTB ditua (Kanpo-Tarifa Berdina).

b) **Merkatu batua.** Hau ere, teorian behintzat, lortua dela esan genezake, nahiz eta praktikan eragozpenik falta ez. Merkatu batua, produktuen, kapitalen, zerbitzuen eta pertsonen zirkulazio askean oinarritzen denez, ikus dezagun EEE noraino iritsi den lau sail horietan.

1) Produktuen zirkulazio askea. 1968az geroztik muga-zerga edo arantzelik ez da aplikatzen partaideen artean. Hau dela eta, izugarrizkoa izan da elkartekideen harreman komertzialen gorakada: 1960an partaideen arteko inportazio-esportazioak % 37,5a baldin baziren, 1983ean % 51taraino iritsi dira. Eta harreman hauetan izan du bere zeregina BEZ delakoak ere (Balio Erantsiaren gaineko Zergak), zeren zeharkako zergen harmonizazioa ekarri bait du berak.

Bestalde, kontingenteak galerazita daude, nahiz eta partaideek babes-klausula baten bidez kasu berezietan jartzeko eskubidea izan.

Hemen aipatzen ari garen askatasun honek beste debeku batzu ere suposatzen ditu: Monopolio komertzialak (Espaniako CAMPSAren antzekoak) desegitera behartuta daude elkartekideak, eta enpresek, EEEaren baimenik gabe, ezin dute Estatuaren baliabide finantzario berezirik edota subentziorik jaso.

Hala eta guztiz ere, badira, bai, harreman komertzialak eragozten dituzten oztopoak: Erabaki teknikoak, patente-sistemak, erakunde publikoen hornikuntz politikak, normalizazio-sistema sofistikatuak (Alemaniaren DINaren antzekoak), subentzio eta laguntza fiskal ezkutuak, aduana-prozedurak, eta beste hainbat, baina beti ere, azken finean, denak babestaileak. Hemen batzu bakarrik aipatu arren, EEEko batzordeak salatu duenez, hirurehunen bat dira mota honetako eragozpenak.

2) Kapitalen mugikortasunari dagokionez, askatasun-maila ezberdina lortu dute partaideek. Alemaniak, Holandak eta geroxeago Britainia Haundiak kapitalen joan-etorriak zeharo aske dituzten bitartean, Frantziak eta Italiak, alderantziz, aski kontrolpeturik dauzkate. Ekonomi integrazio-bidea aurreratzeko beharrezkoa da integrazio edo askatasun finantzarioa lortzea; baina pagamendu-balantzaren egoera dela medio, edo arauketa fiskal eta sozietate-zuzenbideak ezberdinak direlako, kapitalen mugimendua nahikoa geldi dago oraindik.

3) Zerbitzuen mugimenduan aurreratu da gutxien. Banka-, seguru- eta garraio-zerbitzuetan, adibidez, arauketa nazional gogorrak eta, gehienetan, desberdinak dituzte elkartekideek, eta egoera honek, zerbitzuen mugikortasuna lortzeko, harmonizazioa eskatzen du.

4) Pertsonen zirkulazio askeari dagokionez, langileen mugikortasuna daukagu alde batetik eta profesionalena bestetik. Lehenengoekikoa 1968an lortu zela esan genezake, oraindik oztopoak eta eragozpenak egon arren. Hauen artean, aipagarrienak ekar ditzagun hona: sektore publikoan norberaren hiritarrei ematen zaien lanpostuen lehentasuna eta Elkartekideek, seguritate- edo osasun-arazoak tartean egokitzean, zuzenbide aske hau murrizteko duten eskubidea. Bestelako arrazoiak ageri dira profesionalen munduan: hezkuntz sistemak ezberdinak direla eta, oso zaila gertatzen da titulu eta diplomen onespena edo homologazioa, eta honek oztopo handiak jartzen ditu profesionalen joan-etorri libreetarako.

Merkatu batuak eskatzen dituen baldintzak betetzeko, hainbat pauso eman beharrean aurkitzen da oraindik estreinatu-berria dugun EEE hau. Merkantzien zirkulazio askea lortu omen da, baina pertsonen eta zerbitzuen mugikortasunaren erdiespenerako ahaleginak egin beharko dituzte batez ere arauketaren harmonizazio-bidean.

c) **Batasun ekonomikoa.** Esan dugu EEE ez dela aduana-batasun soila, edota merkatu batua bakarrik, zerbait gehiago baizik. Ekonomi batasun-bidea darama, eta, lehen aipatu dugun bezala, maila hau lortzeko beharrezkoa da, ekonomi politika berdina erabiltzea. Ez dezakegu baiezta berori osorik erdietsi denik; baina bai eremu batzuetan bederen. Azter dezagun, bada, politika berdintsu hauek non eta nola eman diren.

1) Nekazal Politika. Erromako Tratatuaren 39. artikuluak helburu hauek egozten dizkio Nekazal Elkarte-Politikari: a) Nekazaritzako produktibitatea ugaritzea, teknika garatuz eta produkzio-faktoreen erabilera hobetuz; b) Nekazarien bizimaila jasotzea. c) Merkatuak finkatzea. d) Hornimenduak segurtatzea. e) Prezioak aseguratzea.

Helburu guzti hauek hiru printzipiotan oinarritzen dira:

— Merkatu bakar bat. Printzipio honen arabera, EEE osoak nazio bat balitz bezala jokatu beharko du nekazal produktuekiko politikan, horretarako gestio-batasun bat ezarriz. Nekazal Politika EEEko Batzordeak eramaten du, Brusela-tik.

— Elkarteko produktuen lehentasuna. Aurreko puntuaren ondoriozko printzipio bat da hau. EEE nekazaritza-arloan nazio bakar bat bada, elkarteko produktuek lehentasuna izango dute barneko merkatuan.

— Erantzukizun finantzario amankomuna. Beste bien ondorio gisa aurkezten zaigu hau. Politika eta gestioa Batzordeak eramaten baditu, baliabide finantzarioak ere Batzordeak ekarri beharko ditu, eta, ondorioz, hauek elkartekideen aurrekontuetatik bilduko dira.

Nekazal politika korapilotsu honek EEEko aurrekontuen % 70 kontsumitzen du (ikus 7. taulan FEOGA delakoaren gastuak). Benetan kostu handia Nekazal Politikaren finantzapenarena, baina beharrezkoa eskusartze-prezioak dauden bitartean. Nekazariei prezio minimo subentzionatuak jartzen bazaizkie, norbaitek finantzatu behar ditu horiek. Bestalde, Europa berde honetan izugarrizko soberakinak finantzatzen dira, eta hauek gero eta gorago doaz, eta, azkenik, ondorioz aurrekontuak ere gora. Hauxe da funtsean EEEko gatazka-ziorik gordinena.

Frantzia eta, maila apalagoan, Italia dira politika honen mozkindunak, Britainia Haundia eta Alemania, ordea, galtzaileak, lehenengoa bait da esnearen eta esnekien ekoizpenean gailentzen

dena eta, hain zuzen ere, soberakin gehienak produktu hauetan gertatzen bait dira.

Nekazal Politikak izan dituen emaitzak ezagutzeko, bizpahiru datu aipatuko ditugu. 1973-1982 bitartean produktibitatea % 18an gehitu da; industrian, ordea, % 9an bakarrik. Epe berean, nekazal laneskua % 31n gutxitu da. Argi ikusten da, beraz, nekazal produktibitateak izan duen arrakasta. Ondorioz, elkartekideen nekazal autohornikuntza % 79tik % 87ra igo da.

2) Arrantza-Politika. EEE sortu zenean ez zen gai hauetaz erabakirik hartu, ez bait zegoen arrantzaren sektorean arazo berezirik. Baina 1976az geroztik, jurisdikziopeko urak berrehun miliatara hedatuak izan zirenetik, partaideen artean sortutako arazoak konpontzeko, batetik, eta arrantzaren ustiapena razionalizatzeko, bestetik, politika komunitario bat ezartzea jo zen biderik egokiena. Horregatik 1983an, urtarrilaren 25ean, Arrantzarako Elkarte-Politika jartzea erabaki zuten. Arrantza-Politika elkartekideek ez, baizik EEEko Kontseiluak finkatzen duela, esan nahi du honek. Beraz, politika komunitario baten aurrean gaude.

Politika amankomun hau egiteko finkatu diren arauak sailkatuko bagenitu, hiru multzo hauetara bilduko genuke legeria hori dena:

— Arrantza-baliabideen gestio eta kontrola. Batzordeak, Arrantzarako Komite Zientifiko eta Tekniko delakoak emandako txostena aztertuz, jartzen ditu urterako harrapaketak. Arrain-mota bakoitzetik harrapa daitekeen urteko kopurua, alegia. Kopurua partaideen artean banatzen da, eta Batzordeak erabakitzen ditu erabil daitezkeen teknika, tresna eta sare-mailak, arrainen neurri edo tamainak ere izendatuz. Arauketa guzti hauek partaideen kontrolpean daude, berauen eskuetan bait dago bakoitzaren uretako kontrol-ardura.

— Arrantza-egituren sustapena eta modernizazioa. Arlo honetako ekintzarik aipagarrienak, hauek lirateke: Arrantza-sistema berriak ikertzea, flotaren birmoldaketa eta modernizazioa zaintzea, akuikultura sustatzea, kaladero berriak bilatzea, komertzializazio-kanalen eraketa eta arrantza-produktuen kontserbazio eta bilketarako azpiegitura-inbertsioak bultzatzea. Guzti hauen finantzapena, aurrekontuan arrantza-politikarako izendatutako laguntzarekin egiten da.

— Merkatuaren erregulazio eta babeskuntza. Arrantzaleen errentak, merkatuaren gorabehera dela medio fluktuaziorik izan ez

dezan eta kontsumitzaileen hornimendua segurtaturik egon dadin, orientazio-prezioak ezarriz arrautzen dira.

Batzordea da beste nazioekin harremanak eramaten dituena, eta baita nazioarteko erakundeetan (FAO, NAFO, eta abarretan) partaideak ordezkatzen dituena ere.

3) Industri Politika. Honi buruz ez dezakegu esan politika komunitariorik dagoenik; Erromako Tratatuan ez zen aipatu ere egiten Industri Politika. 1970ean Colonna Txostena bezala ezagutzen den Memorandum-a argitara zen Industri Politikaren oinarriak jartzeko, baina ezin da esan deus lortu denik.

4) Teknologi Politika. Ipar Amerikaren eta Japoniaren aldean, Teknologi maila galtzen ari da EEE, nahiz eta barne-merkatua haien izarikoa izan. Horregatik, azken urteotan bultzada eman diote europarrek ikerkuntzari. Egitarau aipagarrienak hauek izan dira:

Ikerkuntz Zentru Komunitariorako 1984-87etako Programa Markoa. 700 milioi EMUko aurrekontua dute Zentru honetan lan egiten duten 2.260 ikertzaile eta lankideek. Industri teknologia, fusio nuklearra, fisio nuklearra, energia ez-nuklearrak eta ingurunearen babesa dira ikerkuntz eremuak.

"Esprit" Programan mikroelektronika aurreratua, sotfware teknologia, konputadore bidezko produkzioa eta bulego-sistemak dira, Enpresa, Unibertsitate eta Ikerkuntz Zentruen lankidetzaren bidez, ikertuko diren eremurik nagusienak. 750 milioi EMUko aurrekontua du bere xedeak betetzeko.

"Brite" Programak 125 milioi EMU ditu ikerketarako. Industri teknologia berrien aplikazioa du helburu: laserraren teknologia edo CAD-CAM produkzio-sistemak, adibidez.

5) Garraio-Politika. Nahiz eta Erromako Tratatuan aipatua eta helburu bezala ere jarritakoa izan, porrot egin duela esan dezakegu.

6) Politika Fiskala. BEZ zeharkako zergen ezarrera izan daiteke erdiespenik nagusiena. Partaide bakoitzak, portzentaia ezberdinak aplikatu arren, zeharkako zerga-sistema bera erabiltzea pauso handia izan omen da harmonizazio fiskalerako. Interesgarria izan liteke EEEko partaideek jasaten duten presio fiskalaz zerbait esa-

tea, zeren Estatu bakoitzean ezberdina bait da —nabarmenki ezberdina, gainera— presio hori:

$$\text{Presio fiskala} = \frac{\text{Zergak} + \text{Gizarte-Segurantzako kotizazioa}}{\text{Barne-Produktu Gordina}} \times 100$$

Estatu partaideen presio fiskala

	1983	1979-83 aldakuntza
Alemania	37,2	-0,3
Belgika	46,6	-
Britainia Haundia	38,3	+5,0
Danimarka	46,1	+1,6
Espainia	24,5	+1,1
Frantzia	44,1	+3,0
Grezia	31,9	-
Holanda	47,0	+2,0
Irlanda	40,6	+7,6
Italia	39,9	-
Luxemburg	40,2	+0,7
Portugal	33,0	+6,9

7) Moneta-Politika. Arlo honetan makina bat ahalegin eta txosten egin da batasuna lortzeko; hemen ere eragozpenak handiak izan dira, eta, azkenean, monetaren kontu-unitatea lortu da bakarrik: EMU/ECU (Europako Moneta-Unitatea / European Currency Unit). Baina ez ditu, adibidez, dolarrak edo pezetak dituzten funtzio denak betetzen, ez bait da benetako dirua. Definizio batez deskribatu behar begenu, hauxe dela esango genuke: Europako Ekonomi Elkartean erabiltzen den moneta-unitate bakarra dela, eta elkartekideen monetekin osaturiko saski irekia.

8) Eskualde-Politika. EEE sortu zuen Erromako Tratatuan bertan zehaztatzen ziren helburu orokorren artean, eskualde atzeratuen garapena azaltzen zitzaigun. Geroztik ere EEEko agintariek sarritan azpimarratu dute eskualdeen arteko ezberdintasunak gainditu beharra, ezberdintasun horiek oztopatu baizik ez bait dute egiten batasun ekonomikorako bidea. Eskualde-Politika Komunitarioa 1975ean hasi zela esan dezakegu, urte hartan sortu bait zituzten Eskualde-Garapenerako Fondo Europarra (EGFE-FEDER) eta Eskualde-Politikarako Komitea, bata baliabide finantzarioak banatzeko eta bestea Kontseilu eta Batzordearen kontsulta-organo bezala.

Gaur egun (areago oraindik Espainia eta Portugal integratuz gero) mingarriagoak dira eskualdeen arteko ezberdintasunak. Ezberdintasun-arazoetan, bi motatakoak bereiz daitezke: Eskualde azpigaratuetako ohizko pobrezia eta garatuetan ikean dauden industriek pizten duten arazo sozio-ekonomikoa. Lehenengoak, lurraldez EEEko ia % 20raino iristen dira, eta Elkartekideen arteko batezbesteko BPG/biztanle portzentaia % 60 txikiagoa dute eskualde azpigaratuok, eta guztiek ondoko ezaugarri hauek dituzte: ia denak Mediterranearrak dira, hain zuzen ere EEE osatzen duten naziorik txiroenetan daude, nekazal jendetza aktiboak garrantzi edo pisu handia duen Estatuetan, eta industri-egitura oso ahula dute (Portugal, Grezia, Espainia, Irlanda eta Mezzogiorno italiarra ditugu aipagarrienak).

Ikean dauden eskualdeei dagokienez, jendetza aktiboak industri sektorean duen garrantziak eta azken urte hauetan jasaten ari diren langabeziak definitzen dituzte hauek. Britainia Haundiko industrialdeak, Brabante, Valonia, Lorena Liguria eta Euskal Herria izan litezke aipagarrienak.

EEEko Batzordeak, BPGaren bidez eta desenplegu-tasan oinarrituz neurtzen ditu eskualde-arazoak, bakoitzari indize bat kalkulatuz. Banco de Bilbao-k, sistema bera erabiliz, jarraian ikus dezakegun taula atera du:

4. taula: *EEEko Eskualde-arazoen Indize Sintetikoa*

Eskualdeak	Indizea	Eskualdeak	Indizea
Andalucia (E)	44,8	Asturias (E)	81,6
Extremadura (E)	49,0	Hainaut (B)	81,7
Canarias (E)	56,7	**Nafarroa**	82,0
Calabria (I)	57,9	Limburg (B)	82,4
Northern Ireland (BH)	61,2	Castilla-León (E)	82,5
Irlanda	63,5	Lazio (I)	82,7
Sardegna (I)	64,5	Madrid (E)	82,8
Merseyside (BH)	66,2	Gwent,M.S.W.Glamorg (BH)	82,9
Campania (I)	67,5	Cornwall, Devon (BH)	83,5
Basilicata (I)	68,2	Limburg (H)	83,6
Portugal	68,2	West Mid. County (BH)	84,6
Castilla-La Mancha (E)	70,6	Cataluña (E)	84,7
Sicilia (I)	71,1	Clwy, Dyfe, Gwyn, (BH)	85,7
Dum Gal, Strathclyde (BH)	73,6	Aragón (E)	85,9
Murcia (E)	74,1	Umbria (I)	86,1
Northumber, Tyne Wear (BH)	74,5	Humberside (BH)	86,4
Euskal Komunitate Autonomoa	77,6	Liège, Prov. (B	86,9
Cleveland, Durham (BH)	77,9	Languedoc-Roussillon (F)	88,2
Puglia (I)	78,8	Galicia (E)	88,2
Valencia (E)	79,9	Cantabria (E)	88,6
Abruzzi (I)	80,2	South Yorkshire (BH)	90,9
Molise (I)	81,5	Lancashire (BH)	91,2

Eskualdeak	Indizea	Eskualdeak	Indizea
Greater Manchester (BH)	91,4	Berk sh, Oxford sh (BH)	107,7
Cumbrie (BH)	93,2	Haute-Normandie (F)	107,8
Lincoln Sh. (BH)	93,3	Trentino-Alto Adige (I)	107,8
Stafford Sh. (BH)	93,7	Champagne-Ardennés (F)	108,7
Baleares (E)	94,2	Niederbayern (A)	109,2
Poitou. Charentes (F)	94,4	Oberpfalz (A)	109,4
Bretagne (F)	94,4	Saarland (A)	110,0
Nord-Pas-De-Calais (F)	94,6	Greater London (BH)	110,2
Heref. Worc. Warw Sh. (Bh)	95,2	Brabant (B)	110,2
Basse-Normandie (F)	95,5	Centre (F)	110,4
Midi-Pyrénnées (F)	95,5	Lueneburg (A)	110,9
Prov. Alp.-C.D'Azur + Corse (F)	95,8	Weser-Ems (A)	113,1
Namur prov. (B)	95,9	Franche-Comté (F)	113,8
Avon, Glou sh., Wilt sh. (BH)	96,0	Trier (A)	113,8
Aquitaine (F)	96,4	Rhone-Alpes (F)	114,4
Derby sh. Nottinghan (BH)	96,8	Lombardie (F)	114,5
Ost for Storebaelt (D)	96,8	Oberfrenken (A)	114,8
Leice Sh.Northamp (BH)	97,1	Zeeland (H)	115,2
Marche (I)	97,2	Antwerpen prov. (B)	115,4
Oost-Vlanderen (B)	97,3	Unterfranken (A)	115,7
Vest for Storebaelt (D)	97,3	Hovedstadsregionen (D)	116,0
Dorset-Somerset (D)	98,0	Arnsberg (A)	116,4
Kent (BH)	98,3	Braunschweig (A)	116,7
East Anglia (BH)	98,5	Kassel (A)	117,5
Rioja (E)	98,9	Schleswig-Holstein (A)	117,8
Noor-Brabant (H)	98,9	Muenster (A)	117,8
Cheshire (BH)	99,0	Zuid-Holland (H)	117,9
Auvergne (F)	99,3	Koblenz (A)	119,0
Toscana (I)	99,8	Noor-Holland (H)	119,9
Friesland (H)	100,1	Alsace (F)	120,2
Limousin (F)	100,2	Utrecht (H)	120,5
Liguria (I)	100,2	Valle D'Aosta (I)	121,0
Veneto (I)	101,2	Hannover (A)	121,7
Pays de la Loire (F)	101,3	Mittelfranken	122,3
Essex (BH)	101,6	Koeln (A)	122,3
Grampian, Highl. Islan (BH)	101,8	Schwaben (A)	122,4
Picardie (F)	101,8	Detmold (A)	123,3
North Yorkshire (BH)	101,9	Freiburg (A)	123,7
Friuli-Venezia (I)	102,1	Dusseldorf (A)	125,8
Luxemburg	102,9	Ile de France (D)	126,2
Hampshire, Isle Wight (BH)	103,6	Tuebingen (A)	126,8
Piemonte (I)	104,0	Rheinhessen-Pfalz (A)	127,3
West Vlaanderen (B)	104,3	Luxemburg	128,5
E. Sus Surrey (BH)	104,6	Bremen (A)	128,9
Grezia	104,8	Berlin WEST (A)	129,0
Gerderland (H)	104,9	Karlsruhe (A)	131,3
Overijssel (H)	104,9	Oberbayern (A)	134,1
Emilia-Romagna (I)	105,3	Stuttgart (A)	135,0
Lorraine (F)	105,9	Darmstadt (A)	139,7
Drenthe (H)	106,1	Hamburg (A)	150,2
Bourgogne (F)	106,9	Groningen (A)	153,2
Bed. sh, Buek sh, Her sh (BH)	107,7		

Portugal, Grezia eta Irlanda Estatu bezala azaltzen dira, osoan, ez bait dago eskualdeei buruzko daturik, indize sintetikoa kalkulatzeko. Zerrenda honetako lehen hiru eskualdeak, indize kaxkarrena dutenak beraz, Espainiakoak dira hain zuzen: hauek dira, bada, BPG/biztanle eta desenplegu-tasa kontutan harturik, egoera la-

rrienean aurkitzen direnak. Euskal Herriari dagokionez, EKAk 77,6ko indizea du eta 82koa Nafarroak; hori dela eta, EEEko batezbestekoaren mailara ez gara iristen. Gure kasuan, langabezia dugu hain atzean kokatzen gaituena.

Aipatu dugun bezala, EGFE/FEDER erakundea da eskualde-ezberdintasunak zuzentzeko tresna behinena. Bere aurrekontu-dotazioa urtero zehaztatzen da EEEaren aurrekontu orokorren barnean; 1984ean, 2.140 milioi EMU/ECUtara heldu zen. Diruok gisa hauetako ekintzak finantzatzen erabili ohi dira: a) Eragozpen handiak dituzten eskualdeetako iharduera ekonomiko eta lanpostu berriak lor ditzaketen programa komunitarioetan. b) Interes komunitarioa duten programa nazionaletan. c) Industri eta zerbitzu-sektoreetako inbertsio eta azpiegituretan. Lanpostu berriak lortzen dituzten proiektuek izango dute lehentasuna.

Erizpide honen argitan, erakunde honen ekintzak honela banatu dira, lurraldez-lurralde, eta 1985-87etako baliabideen banaketa-portzentaiak hauek izango dira:

EGFE/FEDERen baliabide finantzarioen banaketa

	Orain arteko banaketa (Milioi EMUtan)	**1985-87etako banaketa** (aurrekontuen %)
Italia	3.546	31,94 - 42,59
Britainia Haundia	2.115	21,42 - 28,46
Grezia	830	12,35 - 15,74
Frantzia	1.415	11,05 - 14,74
Irlanda	554	5,64 - 6,84
Alemania	435	3,76 - 4,81
Holanda	120	1,00 - 1,34
Belgika	81	0,90 - 1,20
Danimarka	107	0,51- 0,67
Luxemburg	7	0,06 - 0,08

Espainia eta Portugal falta dira zerrenda honetan; baina badirudi, beren egoera ekonomikoa ikusirik, laguntza garrantzitsua jasoko dutela. Espainiari dagokionez, 85.000 milioi pezetetan ezarri omen da 1986rako laguntza. Laguntza hauetan sar daitezke, ez bakarrik ohizko atzerapena duten eskualdeak, baita aurreratuetatik gaur egun krisi-arazoak edo birmoldaketa gogorrak jasaten ari diren industri eskualdeak ere.

2.2. Europako Ikatz-Altzairuen Elkartea (EIAE/CECA)

1951ko apirilaren 18an, Euratom eta EEE sortu baino sei urte lehenago, Alemania, Frantzia, Italia, Holanda, Belgika eta Luxemburg-ek Parisen EIAE/CECA Tratatua sinatu zuten. 1973an Irlanda, Britainia Haundia eta Danimarka eta 1981ean Grezia bildu ziren elkarte berera. Espainia eta Portugal, aldiz, 1986an.

Arestian aipatu ditugun nazioarteko kooperazio-motetan, EIAE sektore-artekoa dugu. Hots: partaideek, ekonomi sektoreekiko erabaki-gaitasuna galduz, erakunde supranazionala sortzen dute eta sektoreei dagozkien akordio guztiak hartzeko gaitasuna elkarte berriari pasatzen diote. Hasiera hartan jadetsi nahi izan ziren helburuak, hauek ditugu: Alemania eta Frantzia elkartzea, gerra-arriskuak urrunduz, eta ikatz-altzairuen baliabideak biltzea eta garatzea. Horretarako hartutako neurriak, honela labur daitezke: partaideen arteko arantzelak desagertzea, partaide artean beste nazioekiko arantzel eta akordio berdinak izatea, jarrera oligopolistikoei itzurtzea eta finantz politika berdina erabiltzea.

Erakunde honen organo exekutibo gorena Batzordea da, eta ahalmenik badu nahiz eskaera-krisian, nahiz eskasaldian eskusartzeko, horretarako erabaki-molde hauek erabiliz: produkzioedo salmenta-kuotak ezarri, gehienezko edo gutxienezko salneurriak onartu, eta inbertsio-, inportazio- eta esportazio-kontrola eraman.

1974az geroztik, petrolio-krisia dela eta, izan dira inbertsio-laguntzak, eta baita subentzioak ere, ikatz-sektorean produkzioa nahiz kontsumoa gehitzeko. Altzairu-sektorea, ordea, krisi gogorra jasaten ari da, eta azken bost urte hauetan birmoldaketa erraldoi bati ekin diote europarrek. Produkzio-ahalmena 30 milioi tonatan gutxitu da (% 18 alegia). Hamabi urtetan 450.000 lanpostu galdu dira, hau da, 1974eko lanpostuen % 57a. Estatu partaideek beren enpresei ematen dizkieten laguntzak kontrolpean ezarriz, kostuak gutxitzeko eta kalitatea hobetzeko egin diren inbertsioak txit garrantzitsuak izan dira.

Atxekimendu-Tratatuan azaltzen denez, Espainiak ikatz-altzairuen sektoreko aduana-batasuna zazpi urtetan egin behar du, eta Espainiako enpresen birmoldaketa hiru urte baino lehen burutu beharrean aurkitzen da, azkenean produkzio-ahalmena 18 milioi tonatan utziz.

5. taula: *Siderurgia Espainian eta EIAEn*

	1974		1982		1989-90	
	Espainia	EIAE-9	Espainia	EIAE-10	Espainia	EIAE-12
Altzairu-produkzioa (106 t-tan)	11,5	156,2	13,2	110	15,5	130
Inportazioak	1,6	37,1	1,3	36,7		
Esportazioak	0,8	63,2	4,9	52,4	+5,0	+13
Kontsumo/biztanle (Biztanleko kg.)	334	475	213	340	262	362
Produkzio-ahalmena	13,6	148,4	20	157	18	160
Enpleguak (10^3 langile)	75	795	66	513	45	345
Batezbesteko produktibitatea (Produktu-t/enplegu)	120	141	141	163	350	375

Iturria: *Papeles Economía Española. 1985/25.*

Taula honetatik atera daitezkeen ondorioak, irakurleak berak azter ditzake. Gure aldetik, enpleguaren eta produkzio-ahalmenaren beheraldia eta betezbesteko produktibitatearen gehikuntza azpimarratuko ditugu.

2.3. Europako Atomo-Energiaren Elkartea (EURATOM)

1957ko martxoaren 25ean Belgika, Frantzia, Italia, Alemania, Luxemburg eta Holandak izenpetu zuten Euratom edo Europako Atomo-Energiaren Elkartea sortu zuen Tratatua. 1973an Danimarka, Irlanda eta Britainia Haundia sartu ziren elkarte honetan, eta, 1981ean Grezia. Azkenik, 1986an Espainia eta Portugal.

Estatu partaideen bizimaila jaso, beste nazioekiko elkartrukeak garatu, industria nuklearraren erakuntza bultzatu eta hazkundea baldintzatzea izan ziren erakunde berri honen xede bereziak, horretarako bere iharduera ondoko hauetan sustatuz: 1) Hornimendu-politikan, hornimendu-agentzia baten bidez meaz, lehengaiez eta fisio-materialez partaideak hornitu. 2) Iker-proiektuetan, Komite Zientifiko eta Teknikoaren bitartez, politika zientifikoa gidatu, Elkartearen baliabideekin ikerkuntza propioa eginez edo partaideen ikerlanetan parte hartuz edo baita beste nazioekin kolaboratuz ere. Ikerkuntza adierazgarrienak seguritate nuklearrean, energia ez-nuklearrean eta erreaktoreen seguritate-arloan egin dituzte; ikertoki handienak Petten (Holanda), Karlsruhe (Alemania),

Ispra (Italia) eta Geel-ekoak (Belgika) izan dira. Materiale nuklearraren erabilpena kontrolatzea eta nazioarteko erakundeekin akordioa izenpetzea ere bere eginkizunak dira, eta orain arte energia nuklearraren eremuan jokatu arren, badirudi sektore energetiko osora hedatu dela erakundearen ahalegina.

Nahikoa adierazgarria izango delakoan, begira dezagun 1990. urterako egin duen energi kontsumoaren aurrikuspena:

Energia primarioaren eskaera. Aurrikuspenak (1990)

Energi motak	Espainia		EEE	
	M. Tek.	%	M. Tek.	%
Petrolioa	61,6	47,6	629,7	42,8
Ikatza	31,5	24,3	345,6	23,5
Gasa	6,3	4,9	271,3	18,4
Indar nuklearra	15,2	11,8	207,1	14,1
Indar hidraulikoa	14,8	11,4	17,1	1,2
Eskaera guztira	129,4	100,0	1.470,8	100,0
Barne-produkzioa	58,8	45,4	804,0	54,7

3. Erakundeak

Elkartekideen aurkezpena egin dugu, eta baita horien arteko elkarteak deskribatu ere. Ondoren, EEEek zuzentzen dituzten erakundeei begirada labur bat emango diegu, ezaugarri behinenak irazkinduz.

3.1. Kontseilua

Kontseilu hau organo legislatibo gisakoa da, eta Elkarteen Politikari buruzko oinarrizko erabaki garrantzitsuenak hartzen ditu. Halaber, EEEen eta EURATOMen arau-fakultatea du, eta Elkarte hauek dituzten kanpo-harremanen arduraduna da. Europako Ikatz-Altzairuen Elkartean, ordea, ahalmen gutxiago edo mugatuagoak ditu, zeren hemen Batzordeak hartzen bait ditu erabaki nagusienak.

Estatu partaideen gobernuen ordezkariek osatzen dute Kontseilua, baina horrek ez du esan nahi gobernuarteko organoa denik, alderantziz, Elkartekoa baizik. Erabakiak batzarkideen gehiengoz hartzen dira, eta botuak honela banatzen: Alemania, Frantzia, Italia eta Britainia Haundiak, hamarna; zortzi, Espainiak; Belgika, Grezia, Holanda eta Portugalek bostna; Danimarka eta Irlandak hiru bakoitzak eta bi Luxemburg-ek.

Kontseilua bi adarretan banatzen da, COPERER eta Kontseilu-Ordezkaritza Orokorra. Lehenengoak proiektuak prestatzen dizkio Kontseiluari, eta administrazio-erantzukizuna darama bigarrenak.

3.2. Batzordea

Hau ere Elkarteko organoa da, eta ez gobernuartekoa; botere garrantzitsuak ditu, nahiz eta nabarmenena Erroma eta Pariseko Tratatuen aplikazio zehatza kontrolatzea izan. EEE eta Euratom Elkarteetan, Kontseiluaren arauak bete erazten ditu. EIAEn, aldiz, arau-ahalmena du, eta, beraz, Elkarte honen organo legislatiboa da. Aurrekontuen aplikazioa eta elkarteko fondoen artekaritza dira aipa ditzakegun beste funtzio batzu.

Batzordekideak lau urtetarako aukeratuak izaten dira, eta Estatu elkartekideen gobernu bakoitzak izendatzen ditu, baina hauengandik ezin dute agindurik jaso, Europako Parlamentuaren kontrolpean bakarrik bait daude.

3.3. Parlamentu Europarra

Argi utzi behar dugu, Parlamentu Europarra ez dela organo legislatiboa, kontsultiboa baizik; hala eta guztiz ere, badu eginkizun franko, eta etorkizunean gehituz joango dira, gainera. Hona Parlamentu honen kontsulta- eta kontrol-funtzioak: Elkarteen kontrol politikoa, zentsura-sistema baten bidez; kontseiluaren eta batzordearen organo kontsultiboa da; aurrekontuen onarpena eta kontrola dagokio, eta nazioarteko akordioen sinadura, horrez gain.

Gaur egun, 518 parlamentari ditu, Estatu partaideen biztanleen arabera. Honela banatzen dira parlamentariak: Frantzia, Italia, Britainia Haundia eta Espainiak 81 parlamentari bakoitzak; Holandak 25 ditu; 24na Belgika, Grezia eta Portugalek; Danimarka-k 16; Irlandak 15, eta 6 Luxemburg-ek.

Parlamentariak, sufragio unibertsalaren bidez, bost urtetarako hautatuak izaten dira, eta Parlamentuan talde politikoka banatzen. Horregatik, Ganbaran ikus ditzakegun talde sozialista edo demokrata-kristauak, alemaniar, frantziar eta espainiarrek osatua ageri da bakoitza. Ordezkariok ez dute beren Gobernuaren agindurik jasotzen, eta botua indibidual eta pertsonala da.

3.4. Justizi Auzitegia

Estatuen eta Elkarteen agintari edo ordezkariek, Tratatuetan dauden arauak eta norabideak betetzen dituzten kontrolatzea eta elkarte-agintarien egintzez jabetzea da Justizi Auzitegiaren eginkizunik propioena. Hamaika Epailek eta bost Abokatu Orokorrek osaturik dago, eta sei urtetarako hautatuak izaten dira.

3.5. Batzorde sozio-ekonomikoa

Elkartekideen proposamena kontutan izanik, Batzordeak 156 partaide izendatzen ditu erakunde honetarako, sektore ezberdinen interes ekonomikoak eta sozialak batzorde sozio-ekonomiko horretan ordezka ditzaten. Berau batzordearen kontseiluaren kontsulta-organo baten betekizuna du.

3.6. Europako Inbertsio-Bankua (EIB)

Eskualde-garapenerako sortutako finantz erakundea da Inbertsio-Banku hau. 1957an eratua, 1958-1982 urteetan 16.000 milioi EMU banatu ditu mailegu, abal eta bonifikaziotan, nahiz eta beronen ekonomi iharduera nabarmena inbertsio-proiektuan epe luzerako finantzapena izan. Jesapenak jaulkiz lortzen ditu bere baliabideak finantz merkatuetan.

3.7. Fondo Sozial Europarra

Nekazaritzak, ehungintzak eta, orokorki, birmoldaketa jasaten ari diren sektoreek langabetzen dituzten langileentzat lanpostuak sustatzeko edo eragintza bultzatzeko eta lanbide-hezkuntza hedatzeko eratua izan zen.

Fondoaren % 40a gutxienez eskualde azpigaratuetara zuzendu behar du, batez ere hogeitabost urte arteko langabetuei laguntza

emanez. Finantzapena EEEko aurrekontuan sartzen da, eta 1984ean 1.902 milioi EMUko dotazioa izan zuen.

3.8. Eskualde-Garapenerako Fondo Europarra (EGFE/FEDER)

1975ean sortu zen, eskualde atzeratuen garapenean parte har zezan, eta baita krisian dauden eskualde industrialei laguntzeko ere. 1984ean 2.100 milioi EMUko laguntzak banatu zituen eta EEEko aurrekontuaren bidez lortzen ditu baliabide finantzarioak.

3.9. Nekazal Garantia eta Orientaziorako Fondo Europarra (FEOGA)

Nekazal Elkarte-Politikaren erakunde finantzarioa dela esan genezake. Bi egiteko eta sail ditu barnean: garantia eta orientazioarena. Batak nekazal produktuen salneurriak garantizatzen ditu, eta besteak, egitura-politikaren finantzapena. Bere finantz baliabideak aurrekontutik eskuratzen ditu, eta 1984ean 18.401 eta 620 milioi EMUko dotazioak izan zituzten bi atalek.

3.10. Garapenerako Fondo Europarra (GED)

EEEan bilduta eta garapen-bidetan dauden nazioekiko finantz kooperazioa, nahiz azpiegitura ekonomikoak eta sozialak laguntzea, nahiz industri eta nekazal proiektuak finantzatzea dira Fondo honen ekintza bakarrak. Elkartekideen ekarpenekin osatzen dute Fondoa; Espainiari berrikitan 499,6 milioi EMUkoa ezarri diote.

3.11. Moneta-Kooperaziorako Fondo Europarra

Europako Moneta-Sistemaren gestioa eramaten du, eta baita elkartekideen dolar- eta urre-erreserben % 20a jaso ere, ekarpen bezala, eta hauen kontrakontutzat EMUak jaulki.

3.12. Eurostat

EEEko Estatistika-bulegoa dugu. Batzordearen menpe dago, eta Luxemburg-en du egoitza.

4. EEEen aurrekontu-sistema

Bi dira EEEen aurrekontuak: orokorra bata eta EIAErena bestea. Lehenengoari helduz, ikus ditzagun Aurrekontu Orrokorraren 1985eko sarrerak eta gastuak:

6. taula: *1985eko aurrekontu orokorra: Sarrerak (Milioi EMUtan)*

Sarrera-motak	Baliabide propioak	Beste sarrerak	Guztira	%
Aduana-eskubideak	8.596			30,2
Nekazal esakzioak	1.082			3,8
Azukre-kotizazioak	1.025			3,6
Baliabide propioak	10.703		10.703	37,6
BEZ	15.461		15.461	54,4
Guztira (Baliabide propioak)	26.164		26.164	92,0
Gobernuarteko aurrerakinak		1.982	1.982	7,0
Ekarpen finantzarioak		15	15	0,1
Sarrera ezberdinak		272	272	0,9
Guztira (Beste sarrerak)		2.269	2.269	8,0
Sarrerak oro	26.164	2.269	28.433	100,0

Azter ditzagun orain sarrera-kontzeptu guztiak. Dakigunez, partaideen arteko merkatal erlazioei ez zaie aduana-eskubiderik edo arantzelik aplikatzen, baina bai beste nazioetatik, hau da, EE-Etik at dauden estatuetatik datozen merkantziei. Hauei ezarritako aduana-eskubideak Elkartekideen baliabideak kontsideratzen dira eta EEEko aurrekontura ekartzen.

Nekazal ordainerazpen (esakzio) erregulatzaileak, nekazal ekoizpenei jartzen zaizkien inportazio-zergak ditugu. Lehen aipatu ditugun aduana-eskubideen antzekoak dira, baina nekazal produktuei ezarritakoak.

Azukre-kotizazioa bezala ezagutzen den sarrera, EEEko azukre-enpresek ordaintzen dute beren produkzioaren arabera. Pro-

dukzio-zerga hau merkatuari ezarritako laguntzak estaltzeko inposatua izan da.

BEZaren sarrerak: partaide bakoitzak BEZaren bidez biltzen dituen zergei tasa bat aplikatuz kalkulatzen da aurrekontuan hain garrantzi handia daukan sarrera hau (aurrekontuaren sarreren % 54,4 suposatzen du). BEZaren % 1,4ean jarri da muga 1986rako, baina Batzordeak 1988an 1,6ra igotzeko ahalmena du.

Badirudi beste sarrerek ez dutela garrantzirik, eta koiunkturalak direla. Argi dago aduana-eskubideak eta BEZa direla garrantzitsuenak, bien artean % 84,6 osatzen bait dute.

Sarrerak ezagutzen ditugunez, ikus dezagun orain non eta nola gastatzen dituzten EEEan finantz baliabideak.

7. taula: *1985eko aurrekontu orokorra: Gastuak (Milioi EMUtan)*

Gastu-motak	Kantitatea	%
FEOGA-Garantia	19.955	70,2
FEOGA-Orientazioa	688	2,4
Arrantza-politikarako laguntza	112	0,4
Garraio- eta eskualde-garapenerako laguntza	1.698	6,0
Arlo soziala	1.626	5,7
Industria, energia eta ikerkuntzarako	1.267	4,
Partaideei errenboltsatua	1.267	4,4
Kanpoko nazioei laguntza	1.044	3,7
Erakundeen funtzionamendua	888	3,1
Batzordeak, guztira	27.985	98,4
Beste erakundeak	448	1,6
Gastuak, guztira	28.433	100,0

Nekazaritza eta arrantza dira EEE barnean elkarte-politika edo politika supranazionala daramaten bakarrak. Horregatik, sektore hauen finantzaketa aurrekontu bidez egiten da. Nekazari-politikaren finantzaketak aurrekontuaren % 72,6 suposatzen du. Arestian aipatu ditugu honen arrazoiak, eta EEEari sortzen ari zaion arazo jasanezina.

Honetaz aparte, badaude beste tresna finantzarioak maileguak lortzeko. Interesgarria da erakundeek urte hauetan eman dituzten maileguen kopuruak ezagutzea:

Mailegu-eragiketen eboluzioa EEEan (Milioi EMUtan)

Erakundea / Urtea	EIAE	EIB	EURATOM	NIC	GUZTIRA	%
1982	740,6	3.453,2	316,8	791,0	5.346,6	29
1983	778,1	4.255,7	366,4	1.211,8	6.612,0	25
1984	825,5	5.013,1	186,0	1.181,8	7.206,4	9

EIAE = Europako Ikatz-Altzairuen Elkartea
EIB = Europako Inbertsio-Bankua
EURATOM = Europako Atomo-Energiaren Elkartea

5. Euskal Herria eta EEEak

Euskal Herria EEEaren barnean aurkitzean, herronka sozio-ekonomiko berri bati eman behar dio aurpegi. Industri Iraultza egin genuenetik hona izan dugun desafiorik handienetako bat da hau, eta, agian, ez gaude honetarako prestatuegiak.

5.1. Euskal Herriaren egitura eta egoera

Ezaguna da 1975. urterarte Euskal Herriak, batez ere Bizkaiak eta Gipuzkoak, izan zuen garapen ekonomikoa. 1955-1975etan herrialde hauek (Bizkaia eta Gipuzkoa) izan ziren Espainian *per capita* errentan lehenengo eta bigarren postua mantendu zituztenak. Araba eta Nafarroa, ordea, laugarren postutik zortzigarrenera bitartean mugitu ziren. Nahiz eta garapen honen zergatiak ezagutzea interesgarria izan, ez zaigu iruditzen hau azterketa egiteko egokierarik onena. Gogora dezagun, hala ere, 1975ean (mundua 1973an hasitako petrolio-krisiaren ondorenak jasaten ari zen bitartean) Espainian, eta Euskal Herrian jakina, egoera baikorrean geundela oraindik, krisia sekula etorriko ez zitzaigulakoan. Urte haietan hazkunde-tasa itzelak izan zituen Euskal Herriak eta industri sektoreak batez ere arrakastarik handienetakoa ezagutu zuen, metalurgian gehienbat (altzairu- eta ontzigintza). Erdietsi zen garapen-maila pribilegiatu honek izan zituen bere alde txarrak ere, zeren industrializazio irrazionala izan bait zen, eta utzi zizki-

gun morrontzak (kutsadura, plangintza gabeko eraikintza, espekulazioa, etab.) oraindik sufritzen bait gaude.

Laburpen gisa, honelatsu deskriba genezake 1975ean Euskal Herriak zeukan egoera ekonomikoa: Estatuko BPG gorenetarikoa, Espainiaren ondoan kanpo-merkataritza irekiagoa zuen, egitura ekonomikoa industrian (metalurgian gehienbat) bildua zegoen, eta desenplegu-tasa oso txikia jasaten genuen. Europarekin konparatuz, ostera, bazituen bere aldeak: batez ere enpresen dimentsioetan, produktibitatean eta produktuen kalitate-arloan.

Jarraian ematen ditugun hiru taula hauetan ikus ditzake irakurleak Euskal Herriak urte horietan izan duen bilakaeraren lerro nagusiak:

8. taula: *Hego Euskal Herria BPG eta BPG/biztanleko*

Kontzeptua / Lurraldea	Barne-Produktu Gordina (Milioi pezetatan)			BPG / biztanle (Pezetatan)		
	1979	1981	1983	1979	1981	1983
Araba	120.308	154.162	223.047	482.494	595.795	843.874
Bizkaia	435.889	550.827	739.841	372.296	462.401	614.619
Gipuzkoa	273.492	345.840	499.158	398.383	497.221	710.338
Nafarroa	186.883	244.236	338.860	373.636	478.954	652.637
Hego Euskal Herria	1.016.572	1.295.065	1.800.906	389.963	487.698	669.486
Espainia	12.818.601	16.698.773	22.368.746	346.269	441.594	580.247
HEH / Espainia %	7,93	7,75	8,05	112	110	115

Iturria: *Renta Nacional de España 1983*. Banco de Bilbao.

9. taula: *BPGren hazkuntz maila, prezio iraunkorretan*

	1975	1976	1977	1978	1979	1980	1981	1982	1983
Euskal Komunitate Autonomoa	+1,4	+0,8	+0,7	-4,3	-6,3	-2,7	-1,7	+1,5	+1,5
Espainia	+1,0	+3,0	+2,6	+2,9	+1,1	+0,8	+0,5	+1,5	+0,5
BPG EKA/Espainia (%)	7,8	7,6	7,5	7,0	6,5	6,2	6,1	6,1	6,4

Iturria: ICE. *Economía del País Vasco. Economía Vasca 1983-4*. Caja Laboral Popular.

10. taula: *Hego Euskal Herria: BPG eta jendetza aktiboa, sektoreka*

	BPG/sektore (%)			Jendetza aktiboa/sektore (%)		
	Nekazaritza	Industria	Zerbitzuak	Nekazaritza	Industria	Zerbitzuak
Araba	5,0	52,7	42,3	8,9	49,0	42,1
Bizkaia	2,2	47,3	50,6	5,0	46,6	48,5
Gipuzkoa	3,2	52,4	44,4	6,7	48,1	45,2
Nafarroa	9,5	41,0	49,5	14,4	40,8	44,9
Euskal Herria	4,2	48,2	47,6	7,5	46,2	46,2
Espainia	6,5	33,8	56,7	18,0	33,5	48,4

Iturria: *Renta Nacional de España. 1983.* Banco de Bilbao.

Bederatzigarren taulan azaltzen zaigu azken hamarkadan Euskal Komunitate Autonomoko BPGak izan duen eboluzioa. Espainiakoarekin konparatuz, jaitsiz joan da, batez ere 1978-81 urteetan izan ditugun tasa negatiboak direla medio. Baina 1982a inflexio-urtea izan dela esan genezake, Espainiaren mailako hazkunde-tasa izan bait dugu; 1983an, aldiz, handiagoa lortu dugu.

Hamargarren taulak ere gauza bera baieztatzen digu: 1983an Euskal Herriaren BPGak Espainiarekiko duen pisua 1979koa baino handiagoa da, lurralde guztiek indarberritze berdina ez izan arren. Gipuzkoak lortu du gehiena, eta Bizkaiak eskasena.

Sektore-egiturari buruz, berriro industri sektorearen garrantzia gailentzen da, bai BPGaren aldetik, bai jendetza aktiboarenetik. Datu hauek berriz ere gure Herriaren industrializazioa egiaztatzen dute, Nafarroa maila apalagoan geratzen dela ere.

Hona iristean, egoki izango da, gehiago zehaztatzeko, industri sektorearen balio erantsiaz zerbait esatea (ik. 11. taula)

Taula honek egiaztatzen digu, Euskal Herriko industriak metalurgian bildurik jarraitzen duela. Metalezko produktuak, makineriak, metalak (siderurgia) eta garraio-materialeak suposatzen bait dute sektorearen % 51,05a. Hain zuzen ere, azpisektore hauek ikean daudenez eta birmoldaketa gogorra jasatzen ari direnez, egoera honek Euskal Herria sufritzen ari den langabezia azaltzen digu (ikus 2. taula).

Laburbilduz, honela azalduko genuke gaur egungo egoera. Egitura ekonomikoak industrian eta batez ere metalurgia-siderurgietan bilduta jarraitzen du. Ez daukagu lehengairik, eta honek menpekotasun lotuegia ezartzen du. Espainiaren eta kanpo-mer-

11. taula: *EKA eta Nafarroa: Industri sektorearen balio erantsia (1983)*

Azpisektorea	Balio erantsia (milioi pezetatan)	%
Energi produktuak eta ura	50.798	5,85
Mineraleak eta metaleak	105.788	12,18
Mineraleak eta produktu ez-metalikoak	36.953	4,26
Produktu kimikoak	31.801	3,66
Metal-produktuak eta makineria	302.547	34,85
Garraio-materialak	34.890	4,02
Elikadura-, edari- eta tabako-produktuak	69.708	8,03
Ehun-, larru- eta oinetakogintza	23.010	2,66
Papergintza	46.149	5,32
Zurgintza, kortxoa eta altzariak	26.864	3,09
Kautxu, plastiko eta beste materiak	60.460	6,96
Eraikuntza eta injinerutza	79.094	9,12
	868.062	100,00

Iturria: *Renta Nacional de España 1983.* Banco de Bilbao

katuaren menpe gaude, barne-merkatua txikia delako. Azkenik, krisian dauden industrien birmoldaketa egiten ari gara, eta, ondorioz, langabezia astuna jasaten.

5.2. Euskal Herriaren eta EEEen arteko harreman komertzialak

Arestian Euskal Herriaren egiturara eta egoerara hurbildu bagara, Euskal Herriaren eta EEEaren arteko harremanak ikusiko ditugu orain. Honela, gure ekonomiak EEEarekiko duen menpekotasun-maila ezagut dezakegu, gero EEEan sartzeak dakarzkigun ondorioak aztertzeko.

Jarraian dugun taulan, lurralde bakoitzaren inportazio- eta esportazio-datuak eta sektore-sailkapena aurkezten ditugu.

Taula honetatik bi datu nabarmenduko genituzke: batetik, Euskal Herriko ekonomiaren irekitasuna, zeren guztira inportazio-esportazioek BPGaren % 25 eta % 24 suposatzen bait dute (3. taulan ikusi ahal izan dugunez, Britainia Haundiak edo Italiak dituztenen antzekoak); eta, bestetik, esportazioen % 52a produktu metalurgikoak direla eta inportazioen % 54a petrolioa. Kobertura-tasari dagokionez (hau da, esportazioak zati inportazioak), hona hemen azken urteotako bilakaera:

12. taula: *Euskal Herriaren esportazio-inportazioak (1983) (Milioi pezetatan)*

Azpisektoreak	Araba		Bizkaia		Gipuzk.		Nafarroa		Guztira			
									Inport.		Esport.	
	Inp.	Esp.	Inp.	Esp.	Inp.	Esp.	Inp.	Esp.	Kopurua	%	Kopurua	%
1. Elikadura eta edariak	925	2.395	26.891	7.985	7.295	2.907	1.189	5.807	36.300	7,9	19.094	4,3
2. Petrolio-produktuak eta mineralak	171	--	240.738	79.686	5.688	--	1.925	56	248.522	54,2	79.742	18,1
3. Kimika, kautxu eta plastikoak	4.057	7.975	13.944	14.621	13.672	20.961	4.825	3.670	36.498	7,9	47.226	10,7
4. Ehun-, larru- eta oinetakogintza	592	655	932	574	2.703	1.490	1.028	1.672	5.256	1,1	4.391	1,0
5. Zurgintza eta altzariak	518	1.584	1.375	2.845	1.900	3.271	1.451	1.573	5.307	1,1	9.273	2,1
6. Papergintza eta arte grafikoak	296	1.241	2.652	3.443	6.059	6.504	2.372	9.735	11.379	2,5	20.923	4,7
7. Mineral ez-metalikoak, zeramika, zementu eta beira	655	3.247	3.381	2.498	2.825	2.357	1.046	2.036	7.907	1,7	10.139	2,3
8. Metale arruntak eta manufakturak	11.350	25.195	22.348	60.852	25.120	47.585	2.542	9.496	61.360	13,4	143.128	32,6
9. Makineria	3.938	5.907	14.572	15.130	8.640	27.868	4.055	8.248	31.205	6,8	57.154	13,0
10. Garraio-materialea	934	3.396	839	15.074	891	4.810	913	5.207	3.578	0,7	28.487	6,5
11. Beste produktu manufakturatuak	735	969	7.647	14.775	2.006	3.400	522	234	10.910	2,4	19.378	4,4
Guztira	24.223	52.565	335.319	217.483	76.799	121.153	21.868	47.734	458.222	100,0	438.935	100,0
BPGari buruzko %	10,86	23,43	45,32	29,39	15,28	24,27	6,45	14,08	25,44		24,37	

	1979	1980	1981	1982
EKA (%)	91,6	77,2	80,7	102,5
Espainia	71,7	60,9	58,5	63,6

Berehala ikusten da hor euskal esportazioen indarra.

Gure ekonomiaren irekitasunaz dioguna bukatzeko, ikus dezagun kanpo-merkataritzak BPGari buruz lurralde bakoitzean duen portzentaia.

Hego Euskal Herria: Kanpo-merkataritza/BPGen portzentaiak

	Inportazioa + esportazioa %	Inportazioa + Esportazioa Petroliorik gabe %
Araba	38,12	38,12
Bizkaia	77,03	32,49
Gipuzkoa	43,80	43,80
EKA	60,36	37,04
Nafarroa	21,70	12,70
Hego Euskal Herria	53,03	34,13
Espainia	31,77	--

Datu hauekin, uste dugu, Euskal Herriak kanpo-harremanekiko duen menpekotasuna egiaztatua gelditzen da. Horren osagarri bezala, eman diezaiegun orain begiradatxo bat atzerriko bezero eta hornitzaileei.

	Esportazioak			Inportazioak	
	Milioi pezetatan	Hego E.H.ko %		Milioi pezetatan	Hego E.H.ko %
Frantzia	60.739	13,71	Mexiko	71.074	15,44
Holanda	50.865	11,48	Estatu Batuak	49.168	10,68
Britainia Haundia	43.708	9,87	Frantzia	44.018	9,56
Estatu Batuak	38.274	8,64	Britainia Haundia	40.979	8,90
Alemania	32.453	7,33	Libya	27.382	5,95
Italia	17.537	3,96	Alemania	24.836	5,39
Iran	15.433	3,48	Nigeria	24.642	5,35
Mexiko	15.291	3,45	Emir. Arabeak	21.395	4,65
Algeria	15.288	3,45	Saudi Arabia	16.535	3,59
Soviet Batasuna	14.865	3,36	Iran	14.246	3,09
	304.435	68,73		334.274	72,60

Zerrenda honetan azaltzen diren bezeroek Euskal Herriko esportazioen % 68 suposatzen dute, eta hauetatik % 46 (ia gure esportazioen erdia) EEEko elkartekideek erosten digute. Nahikoa argi dagoela uste dugu EEEk gure ekonomiarentzat duen garrantzia.

Hornitzaileen artean petrolio-ekoizleak dira muntarik handiena dutenak, inportazioetatik % 37a berek saltzen bait digute. Europari dagokionez, zerrendan azaltzen diren nazioek ia % 24arekin hornitzen gaituzte.

Horretaz gain, kontutan izan behar ditugu Espainiak EEEarekin dituen harreman komertzialak, zeren gure ekonomia nola gehienbat Espainiakoarekin lotua dagoen, honen kanpo-merkataritza nolabait Euskal Herriaren zeharkako kanpo-merkataritza dela esan bait genezake. 1983an Espainiak egin zituen inportazioen % 33 EEEtik etorria izan zen, eta esportazioen % 49 EEEra joan zen. EEEk guretzat duen garrantzia eta ia dugun menpekotasuna, argi daudela uste dugu.

5.3. Sarreraren ondorioak

EEEan sartzeak dakarzkigun ondorioei heldu nahi diegu orain. Ez gara sartuko Euskal Herria orokorki aztertzen, ezta sektore edo azpisektoreak ere; nahiz eta nekazaritzari eta arrantzari ukitutxo bat eman, industri enpresek EEEaren aurrean egin behar duten azterketari ekingo diogu berezikiago.

Sektore edo azpisektore bat osatzen duten enpresek ez dute guztiek egoera eta problematika bera; batzutan dimentsioa, produktuak bestetan, merkatuak maiz eta sarritan teknologia eta prozesuak direla eta, enpresak oso berezituta aurkitzen dira, eta azpisektore-analisiak baliteke balio handirik ez edukitzea. Horregatik, enpresen analisi-bidea hartuko dugu eta hauek orokorki kontutan eduki behar dituzten planteamenduak aztertuko, hauetan bait datza beraien superbizipena.

Hasteko, aduana-batasunaren ondorioa aztertuko dugu, hortixe etorriko bait da enpresen gain sarreraren ondoko lehenengo arriskua. Arestian irazkindu dugun aduana-batasunak, batetik, merkantzien zirkulazio askea suposatzen du, inolako zerga, oztopo eta kontingenterik ezarri gabe, alegia; bestetik, gainerako kanpo-aduana tarifa berdina ezartzea. Hurrengo taulan aurkitzen di-

tugu joan zen abenduan zeuden arantzelak, bai Espainiaren, bai EEEaren aldetik.

13. taula: *Batezbesteko arantzelak (%)*

Sekzioak	Sektorea	Espainiaren arantzela		EEEaren arantzela	
		Beste nazioekin	EEEarekin	Orokorra	Espainiarekin
V	Mineraleak	1,7	1,4	0,6	0,4
VI	Industria kimikoak	13,7	10,2	9,1	3,8
VIII	Industria plastikoak	17,5	12,2	8,3	3,4
VIII	Larrua	10,8	6,0	5,3	2,3
IX	Zura eta kortxoa	11,4	7,1	7,4	4,9
X	Papera	10,6	8,8	7,2	2,9
XI	Oihalgintza	18,7	13,0	8,5	3,9
XII	Oinetakoak	14,8	7,4	9,3	3,8
XIII	Buztingintza eta beira	14,7	10,7	7,2	2,8
XIV	Metale preziatuak	3,8	2,7	1,9	0,8
XV	Metale arruntak	12,0	8,8	6,2	2,5
XVI	Makineria	18,2	13,6	6,2	3,5
XVII	Garraio-materialak	14,3	11,6	5,8	2,3
XVIII	Imajina eta soinua	15,0	11,2	7,9	3,9

Espainiak EEEarekin zuen arantzela % 10-15 bitartean mugitzen da; EEEkoa, aldiz, % 6koa; bien artean nahikoa alde dagoela esan genezake, beraz. Gainera, jarraian azalduko dugun bezala, EEEak kasu gutxitan aplikatzen ditu arantzel orokorrak, gehienetan lehentasunezko akordioak bait ditu. Espainia behartuta dago datozen zazpi urteetan EEEari dagozkion arantzelak kentzera eta beste nazioekin kanpo-aduana tarifa berdina ezartzera. Arantzelen desagertzea honela burutuko da: 1986ko martxoan % 10, eta gero urtero urtarrilaren lehengoetan, 1993 arte, portzentaia hauek gutxituz: % 12,5, % 15, % 5, % 12,5, % 12,5, % 12,5, eta % 10. Beraz, lehenengo hiru urteetan arantzelak izango duen murriztea % 52,5era helduko da. Kanpoko nazioei buruzko arantzelak, berriz, data berdinetan EEEak haiekin dituen arantzeletara jaitsi behar dira; baina, EEEak EFTArekin (Europako Truke Librearen Elkartearekin), Herri mediterranearrekin eta Afrika, Karibe eta Pazifikoko 64 Estaturekin sinatu zituen lehentasun-akordioak kontutan izanik, Espainiaren hauekiko arantzelak ia desagerturik gelditukо dira.

Bestalde, BEZaren (Balio Erantsiaren gaineko Zergaren) ezarrera dela eta, barne-kargen Konpentsazio-Zerga —hau da, inportazioei barne-produktuek jasaten dituzten zergen konpentsazio gisa ezartzen zaien zerga— desagertu egin da (egin kontu, honek Espainian % 15 bat suposatzen zuela). Modu berean, esportazio-zergarinketa (desgrabazioa) kendua izan da, eta honek ere gutxi gorabehera % 10 suposatzen zuen eta esportatzaileen aldeko konpentsazioa zen.

Datu hauekin egin dezakete enpresek konpetitibitate-galeraren balorazioa, zeren, arantzel protekzionista denez, honen desagertzeak inportazio-produktuak merkeago utziko bait ditu barne-merkatuan, eta, hortaz, EEEko enpresei hemen saltzeko ahalbidea irekitzen bait zaie. Baliteke enpresa batzuk kostuak murriztea ere, inportazio-lehengai edo input merkeagoz hornitzen badira. Honek kostuetan izan dezakeen eragina kontutan hartzekoa da. Esportatzaileek, aldiz, desgrabazioaren desagertzearekin arduratu beharko dute.

Baina, aduana-batasunaren ondorioen azterketa beharrezkoa izanik ere, ezin daiteke enpresa bat analisi honetan bakarrik geldi, ez bait da hori nahikoa jasango duen konpetentziari aurpegi emateko. EEEan sartuz gero, gure enpresei 280 milioi biztanleko merkatua irekitzen zaie; baina, aldi berean, bere ohizko merkatua, barne-merkatua alegia, aduana-mugak deseginda gelditzen da, eta, beraz, enpresa europarrek (kasu gehienetan hemengoak baino konpetitiboagoak) erraztasun ugari izango dute barne-merkatu honetan sartzeko. Eragozpen franko, bada, euskal enpresei datorkiena; horregatik, oztopo hauei aurre emateko, azterketa sakona egin beharko dute, enpresa europarrekin lehiatzeko prestatuta dauden jakiteko; bestela, europarrek irentsiko dituzte. Enpresaren puntu ahulenak eta sendoenak detektatzeko eta, halaber, egungo ingurune mugikor eta duda-mudazko honetan enpresei egokitzen zaizkien aukerak eta mehatxuak ezagutzeko, enpresek beren barne-azterketa eta inguru-egoera miatzea dute biderik egokiena.

Barne-azterketaren edo, hobeki esanda, barne-diagnostikoaren, azterketa-puntu nagusienak hauek izan daitezke: produkzioa, komertzializazioa, finantzaketa, ikerketa eta garapena, pertsonala, antolaketa eta zuzendaritza. Produkzioaren arloa aztertzeko gai interesgarrienak hauek iruditzen zaizkigu: produkzio-ahalmenaren egokitasuna, enpresa europarrekiko produkzio-kostuen egoera, arantzelen desagerpena dela eta inportazioko lehengaiek eman ditzaketen oportunitateak, eta produkzio-prozesu aurreratuenen

ezagupidea. Guzti hauek, azken finean, produkzio-kostu eta produktibitate konpetitiboak eskuratzeko dira, produktuen kalitate-maila erakoa lortuz. Komertzializazioaren mundua, merkatu-azterketa, merkatal antolaketa eta bere kalitate eta kostua, salneurri-politika, publizitatea eta merkatal eragintza izango lirateke miatzeko gaiak. Finantzaketari dagokionez, europarrekin konparatuz, hemengo enpresek duten egitura finantzarioa ezaguna da: europarrak baino zordunduago daude, eta, beraz, finantz kostu handiagoak dituzte: saiatu egin beharko dute egitura hau hobetzen.

Ikerketa eta garapenari buruz, ohizkoa eta nabaria da gure enpresen atzerapena, eta gaur munduak teknologiaren arloan daraman abiadura ikusirik, hain garrantzitsua den sailari jaramon gehiago egitea ezinbestekoa da. Pertsonalaren sailean ere badago zeregin franko: lanbide berrien eragintza, lanbide-heziketa bultzatu edota ordain-sistemak eta laneko segurtasuna, higienea eta babesa aztertu. Antolaketa eta zuzendaritzari buruz, gestio-sistema, zuzendaritzarako argibidea eta zuzendaritza-antolaketa izan daitezke analizatzeko gaiak. Guzti hau barne-azterketa izango litzateke; ondorioz, enpresek nahikoa zehaztasunez ezagutuko lituzkete beren puntu esakasagoak nahiz hobeak, haiei ebazpide egokienak bilatzeko eta etorkizuna hauetan oinarritzeko.

Baina barne-azterketa ez da aski enpresek beren problematikaren argitasunak zehatz-mehatz jasotzeko; azterketa honen osagarria, ingurune-egoeraren azterketa edo kanpo-diagnostikoa izan daiteke. Azterketa hau, lau arlo hauetan oinarrituko genuke: eskaria, konpetentzia, aurrerapen teknikoa eta erakundeak. Ikus daitekeenez, guzti hauek enpresatik at dauden faktoreak dira eta, beraz, ez daude bere kontrolpean, baina badute eraginik enpresaren funtzionamenduan. Eskariaren analisiak beren merkatua ezagutzera eramango ditu enpresak, baita lortu duten merkatu-kuota jakitera ere; halaber, produktuen egokitasuna edo aldatu beharra erabakitzera, eta funtsean bezeroen premiak betetzeko eskaintza egokiena egitera eta merkatal politika baliagarriena erabiltzera. Kanpo-diagnostiko honen bigarren pausoa, eta benetan gakoa, konpetentzia ezagutzea izango litzateke: dimentsioa, teknologia, produktu-prozesuak, pertsonala, marketing-a etab. dira datu interesgarrienak. Aurrerapen teknikoa aukeratzea da hirugarren pausoa, hemen oinarritzen bait da enpresen eraberrikuntza, eta, beraz, produktibitatea. Erakundeekin (Estatua, Sindikatuak, Banketxeak, etab.) dituzten harremanak, eta etorkizunerako duten eragina izango litzateke azken azterketa.

Diagnostiko hauek —barnekoa eta kanpokoa, alegia— bukatu ondoren, ingurunea eta barne-egoera ezagutuz, puntu ahulak eta sendoak berehala aurkeztuko dira eta baita oportunitateak eta mehatxuak ere. Hurrengo pausoa helburuak ezartzea izango litzateke, hauek lortzeko plan operatiboak jarriz. Azkenean prozesu osoa informazio-arazo bat da, ez bait da erraza EEE bezalako ingurune hedatsu batean hemen laburki aipatu ditugun informazio eta datuak eskuratzea.

Bukatzeko, nekazaritza eta arrantzari buruz zertxobait irazkindu nahi genuke.

Nekazaritza

Ikusi dugu Euskal nekazaritzak nola BPGaren % 4,2 ekartzen duen eta enpleguaren % 7,5a.

Gure nekazariek, ahalegin bikainak egin ondoren, alor guztietan lortu duten produkzio-gehikuntza aipagarria da, benetan. Nafarroan, zerealen hektarea-errendimendua 2,5ez biderkatu da azken hogeitabost urte hauetan. Behi batek urtean ematen duen esnea 1.800 litrotatik 3.560 litrotaraino iritsi da epe horretan; mekanizazioari dagokionez, azken hamar urteetan traktore-kopurua bikoiztu egin da. Beraz, badirudi nekazaritza, mila arazo eduki arren, bide onetik joan dela. Baina orain, EEEan sartuz gero, nekazariek datozkien arazoak gainditzen ez badituzte, makina bat ustiategik porrot egin dezake.

Hemen aipatuko dugun azpisektore bakarra ganaderitza izango da; eta hau, bi arrazoirengatik: Nekazaritzaren % 44 suposatzen duelako eta, hain zuzen ere, EEEan sartuz gero, egoera larrian aurkitzen delako.

EEEaren Nekazal Politikak dituen arazo eta eragozpen gogorrenak, esne eta esnekien azpisektorean ditu, hauek irensten bait dute EEEko aurrekontuaren ia % 20. Aipatu ditugun soberakinak eta berauen finantzapena dira europarrei buruhauste nekagarrienak ematen dizkietenak, eta, arazo estu hau konpontzeko, partaide bakoitzari produkzio-kuotak ezarri zaizkio. Espainiari, hain zuzen, 1983ko produkzioa 5,4 milioi tonakoa izan zenez, horretaraxe mugatu diote produkzio-eskubidea. Hemen datza, orain, sektorearen etorkizun segurtasungabea.

Euskal Herriko esne-sektoreak 18.848 ustiategi eta 49.640 lanpostu ditu, 0,46 milioi tona esne produzitzen ditu, eta beronen

balioa 13.760 milioi pezetatakoa da. Hemengoak, Europako ustiategiekin konparatuz, askoz ere txikiagoak dira, nahiz eta Euskal Herrikoek azken urte hauetan aurrerapen handiak egin (produktibitate eta kalitate aldetik batez ere), eta Espainiakoen ondoan mailarik gorena lortu. Hau argi geldi dadin, bi datu konparatuko ditugu: Euskal Komunitate Autonomoan behiko 3.200 litro lortzen dira, ustiategi aurreratuenetan batezbesteko hori 4.700 litrotara heldu arren. Bestalde, Nafarroan betiko 3.910 litro erdiesten dira. Kalitatea koipe-edukinez neurtzen da, eta indize hau Euskal Herrian 3,42 eta 3,55 bitartean mugitzen da. Europan, aldiz, 3,82 eta 4,28 bitartekoa lortzen dute; produkzioari dagokionez, Frantziak 3.949 litro, Alemaniak 4.683, Holandak 5.278 eta Danimarkak 5.115 litro/behiko batzen dute. Gure aurrerapen eta guzti, hautetatik urrun gaude, beraz, oraindik. Bestalde, hemengo salneurriak EEEkoak baino altuxeagoak direnez, gure prezioak oraingo mailan mantendu beharko dira, harik eta haiek gurera iritsi arte. (Gogora dezagun, Nekazal Politika Elkartekoa dela eta, partaideek ezin dutela beren gisara erabakirik hartu alor honetan).

Atxekimendu-Tratatua sinatu zutenek 5,4 milioi litrotako kuota onartu zuten, eta horrek ondorio latzak ditu gure nekazarientzat. EEEko nazioen mailara iritsi eta haiekin lehiatzeko derrigorrez kalitatea hobetzera eta produktibitatea igotzera behartuak daude Euskal Herriko baserritarrak. Horretarako, ustiategiak eraberritu egin behar dituzte, bai instalazio eta hozteko moduetan, bai arraza hobetuz, jezketa-sistema berriak jarriz, ganadu-janetarako sailak hobeki ongarriztatuz, etab. Guzti hauek egiteko, inbertsioak eta mailegu garrantzitsuak behar dituzte, eta zaila izango da maileguei erantzutea, produkzioa eta salneurriak igotzerik ez badute.

Arrantza

Irazkin labur batzu egingo ditugu honen etorkizunari buruz.

Gure arrantzaleek hiru alde edo zonatan arrantza egin izan dute: VI. zona (Rockall aldea, 58 paraleloan), VII. zona (Grande Sole, Irlandako hego eta mendebal kostaldean) eta VIII. zona (Bizkaiko Golkoan). Datu zehatzik ez izan arren, badirudi, 1977an jurisdikziopeko urak ezarri aurretik, Kantauriko arrantzaleek (550 arrantzontzi gutxi gorabehera) 200.000 tona harrapatzen zituztela. Baina denok ezagutu dugu jurisdikziopeko urak 200 miliatara zabaldu eta gero, nola bai lizentziak eta bai arrantza-kuotak jaitsiz joan diren. Ikus dezagun, bestela, taula jau:

Urtea	Ontziak	Lizentziak	Legatz-kuotak (t)
1977	545	152	14.601
1978	476	156	12.736
1979	415	200	15.500
1980	415	168	11.870
1981	379	142	10.500
1982	326	130	8.500
1983	316	123	8.300
1984	298	118	7.900

Eman diezaiegun begirada bat beste datu hauei ere:

	1974				1981			
	Frantzia		Espainia		Frantzia		Espainia	
	tona	%	tona	%	tona	%	tona	%
VI. Zona	75.000	14,2	31.700	6,0	50.900	7,5	3.600	0,6
VII. Zona	160.300	24,9	88.400	13,7	167.800	28,8	12.500	2,1
VIII. Zona	57.300	19,3	236.900	79,8	67.600	29,5	160.700	70,2
	293.000	19,9	357.000	24,3	286.300	19,5	176.800	12,1

Datu hauek nahikoa adierazgarriak dira arrantzaleek jasan duten egoera gordina ikusteko. Kuota aldetik ia erdira etorri dira, eta 1984ean zituzten lizentziek arrantzontzien % 40 suposatzen zuten. Frantziak, ordea, ia mantendu egin ditu bere kuotak.

Ikus ditzagun, Atxekimendu-Tratatuan lortu diren emaitzak. Baxurari dagokionez, lehengoan jarraitzen da, nahiz eta aurtengo ekainean istilu bizia sortu Ixkoteko kala dela eta. Badirudi Espainiako Administrazioari ahaztu egin zitzaiola gure baxurako arrantzaleentzat hain garrantzitsua den kala hau Tratatuan sartzea. Alturari buruz, 300 arrantzontzi sartu dira zerrendan, eta 150ek dute baimena arrantzan batera egiteko. Teorian behintzat, sei hilabetetan lan egin dezaketela esan nahi du honek.

Kuota-aldetik, 18.000 tona legatz har dezakete; eta beste arrain-motetan, lehen baino baldintza hobeak lortu omen dira.

1994 arte ez da aldaketarik izango, ez kuotan, ez lizentzietan edo orain eskubide deituak direnetan. Box irlandarra, VII. aldeko zatia, galerazita dago gure arrantzaleentzat, eta 1996 arte ezin izango dute alde hartan lan egin. Badirudi Tratatua nahikoa ona izan

dela, baina badago garrantzizko arazo bat ere. Zerrendan dauden arrantzontziak 1994a baino lehen berriekin ordeztuko balira, hauen tonajearen doblea kendu beharko litzateke zaharretatik. Kontutan eduki beharko da 1975a aurretik eraikitako arrantzontziak direla gaurkoak, eta 1994a urrun samar dagoela arrantzontziak segurtasun- eta esplotazio-kondizio onenetan egoteko.

Lortu diren eskubideak Kantauriko flotari banatu behar zaizkio. Hemen, bai, sortu dela istilu eta katramila, arrantzaleen artean. Hain zuzen ere, euskaldunen artekoa izan da nabariena eta garratzena.

---

1. UZEI: *Ekonomia. Hiztegia*, s.u. BPG: "Azken produktua, ekintza produktiboan kontsumitutako kapitala kendu gabe harturik".

X. S.

Bibliografia

BANCO DE BILBAO: *Renta Nacional de España y su distribución provincial, 1983*, Bilbo 1986.

BANCO DE BILBAO: "Pasado, pesente y futuro de la pesca", in: *El Campo*, 99 zk.

BANCO DE BILBAO: "El sector lácteo del norte de España y la CEE", in: *El Campo*, 101 zk.

X.X.: "La nueva CCE. La perspectiva desde España", in: *Papeles de Economía Española*, 25 zk., 1985.

ASKOREN ARTEAN: "Economía del País Vasco", in: *ICE*, 598 zk.

ASKOREN ARTEAN: "España y la CCE", in: *ICE*, 620 zk.

ASKOREN ARTEAN: "La nueva CCE. La perspectiva comunitaria", in: *ICE*, 627-8 zk.

EUSKO JAURLARITZA: *Euskadi en la Comunidad Económica Europea*, Gasteiz.

CAJA LABORAL POPULAR: *Informe Economia Vasca, 1983*, Arrasate.

CAJA LABORAL POPULAR: *Informe Economía Vasca, 1984*, Arrasate.